

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 321/2019 Erabakia, maiatzaren 21ekoa. Onespena ematea laguntzetarako deialdi honen ebazpenari: Auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2019ko programako laguntzak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako. Deialdia azaroaren 13ko 608/2018 Erabakiaren bidez onetsi zen

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako laguntza programa arautzen du II. tituluari.

Foru arau horrek 8. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 13ko 608/2018 Erabakiaren bidez onetsi zen Arabako toki erakundeei programa horren kontura laguntzak emateko 2019ko deialdia, zeina ALHAOn argitaratu baitzen, 132. zenbakian, 2018ko azaroaren 16an.

Erabaki horrek bigarren xedapenaren hirugarren puntuan ezartzen denez, "Hasierako finantza hornidura kuantifikatuta dago Arabako Foru Aldundiaren 2019rako aurrekontuan berriaz edo era osagarrian auzolanen gauzatzea finantzatzeko jasotzen diren partiden hasierako esleipenen batura bezala. Zenbateko horiek handitu ahal izango dira beren hasierako horniduraren ehuneko 50era arteko kopuruaz, 21/2013 Arauaren 21. artikuluko 2 puntuko b) apartatuan ezarritakoaren babesean."

Arabako Lurralde Historikoen 2018ko aurrekontua 2019ra luzatzeko irizpideak ezartzen dituen Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 71/2018 Foru Dekretuan eta Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 8ko 3/2019 Erabakian xedatutakoari jarraituz, Arabako Lurralde Historikoen 2019ra luzatutako 2018ko aurrekontuetan partida hauek jaso ziren, zeinak "Auzo harremanak sustatzeko" laguntza programa finantzatzeko baitira:

10203.1601.7680003	Auzo harremanetarako ekimenak	544.440,00
10203.1601.7680004	Auzo harremanen osagarria	291.900,00

Horren ondorioz, aurretik aipatutako laguntza programa finantzatzeko partiden zenbatekoa, hasiera batean, 836.340,00 eurotan jo zen.

Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak, instrukziorako eskumena daukan organoa izanik, eta 21/2013 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoari jarraituz, prozedura bideratu da aipatutako foru arauari xedatutakoa betetz.

Horren emaitza gisa, proposamena helarazi zaio kide anitzeko organoari, 21/2013 Foru Arauan ezartzen den bezala. Proposamen horrek honako hauek jasotzen ditu: eskatutako lanen zerrenda, ondoren atzera bota diren eskaerak, diruz lagundu daitezkeen lanak, dirulaguntza izango duten lanak eta baztertu diren eskaerak, horietako lan bakoitzari buruzko identifikazio eta kuantifikazio informazio zehatzarekin.

Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuaren txostena eta kide anitzeko organoaren akta ikusirik, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuak proposatu eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea I. eranskinean zerrendatzen diren Arabako toki erakundeei dirulaguntza ematea, auzo harremanak sustatzeko ekimenen 2019ko programaren kontura. Dirulaguntza horiek adierazitako zertarakoetarako eta zenbatekoetan emango dira eta, guztira, 751.510,34 euro egiten dute.

Toki erakunde onuradunak dirulaguntza onartu duela iritziko da baldin eta, 15 eguneko epean, erabaki honen jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera, ez badu aurkeztu dirulaguntzan atzera egiteko idazkirik Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailean.

Bigarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontu 2019ra luzatuaren kontura esleituko dira (taldea: 19.5.19; lerroa: 10-61).

Hirugarrena. Emandako dirulaguntza ez da inola ere handituko.

Laugarrena. Auzolanari ekin aurretik, toki erakunde onuradunak aseguru bat izan behar du kontratatuta parte hartzaileentzat, auzolanetatik sor daitezkeen istripu arriskuak eta bestelako kalteak estaltzeko. Era berean, bere gain hartu beharko du obraren finantzaketa osoa.

Bosgarrena. Toki erakundeak, nahitaezkoa denean, udal lizentzia aurkeztu behar du hilabete epean, erabaki hau jakinarazten denetik kontratatzen hasita, bai eta obra egiteko beharrezkoak diren baimenak eskuratu ere obrari ekin aurretik.

Seigarrena. Obrak egiteko epea 2019ko azaroaren 30ean amaituko da. Epe bera egongo da justifikazio dokumentuak aurkezteko.

Zazpigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordainduko du dirulaguntza, Tokiko eta Udalerriaz gairik Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak adostasuna eman eta gero. Aldez aurretik, erakunde onuradunak auzolanen liburuko orriak bidali behar ditu, jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuek, diruz lagundutako obra gauzatzeko egin diren auzolanen datuekin (eguna, parte hartzaileak eta lan egindako orduak adierazi behar dira, gutxienez), eta erakundeak onetsitako fakturak ere bai.

Materialari eta obra gauzatzeko beharrezko makinen alokairuari dagozkion fakturak jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuek izan beharko dira, baina kontzeptu horiek dirulaguntza eskaeran sartu badira bakarrik.

Erakundeak, jatorrizko fakturekin edo fotokopia konpultsatuekin batera, enpresari ordaindutako materialen frogagiriak aurkeztu ahal izango ditu. Une horretan aurkeztu ez baditu, bi hilabete izango ditu, gehienez ere, ziurtagiriak aurkezteko, dirulaguntza jaso zuenetik aurrera.

Ziurtagiri horiek ez badira aurreko paragrafoan adierazitako epean igortzen, dagokion dirulaguntza eta berandutze interesak itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

Zortzigarrena. Toki erakundeak obrei buruzko kartel bat jarri beharko du ikusgai jardun eremutik gertu, Lurralde Oreka Zuzendaritzak kartela ematen dionean.

Bederatzigarrena. Ez ematea dirulaguntzarik auzo harremanak sustatzeko 2019ko programaren kontura II. eranskinean zehazten diren erakundeei, ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren hainbat artikulutan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz.

Hamargarrena. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuari ahalmena ematea behar adina egintza burutu eta behar adina xedapen eman ditzan, espediente hauek izapidetzeko.

Hamaikagarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SÁENZ

AUZO HARREMANAK 2019 – I. ERANSKINA, EMANDAKOAK

URTEA	ESP.	ERAK. MOT	ERAKUNDEA	OBRA	AURKEZTUTAKO AURREKONTUA	AURREKONTUA LAGUNGARRIA	DIRULAGUNTZA
2019	5012	A.B.	ABORNIKANO	Kutxatilkak eta euri urak	1.782,33	1.374,92	1.374,92
2019	5013	A.B.	ACEBEDO	Edukiontzi estalkiak	5.039,65	5.039,65	5.039,65
2019	5016	A.B.	AMETZAGA ASPARRENA	Zola egitea edukiontziak jartzeko	7.240,16	4.089,15	4.089,15
2019	5017	A.B.	AMETZAGA ZUIA	Bizikleta zirkuitua eta zurezko zubia	15.035,46	15.035,46	15.035,46
2019	5018	A.B.	ANDA	Barrualdeko atea jartzea	2.905,45	2.905,45	2.905,45
2019	5019	A.B.	ANTEZANA DE LA RIBERA	Lurzatia egokitzea	22.195,64	21.980,00	21.980,00
2019	5023	A.B.	APERREGI	Kaleak konpontzea	3.463,60	3.463,59	3.463,59
2019	5022	A.B.	APINAIZ	Segurtasun elementuak eta hiri altzariak jartzea	18.619,48	18.619,48	18.619,48
2019	5024	A.B.	ARGOMANIZ	Seinaleak, kartelak eta balizajea jartzea ostatuko biribilgunean eta inguruetan. 2. fasea	28.219,77	7.519,09	7.519,09
2019	5025	A.B.	ARRIOLA	Kanpoaldea hobetu eta egokitzea goiko aldeko iturri-garbitzean	13.935,57	13.935,57	13.935,57
2019	5027	A.B.	ATAURI	Hesiak aldatzea	3.245,66	3.245,66	3.245,66
2019	5026	A.B.	AXPURI	Bidea konpontzea	22.354,75	9.483,37	9.483,37
2019	5028	A.B.	AZAZETA	Siloko bidea egokitzea	29.992,24	29.992,24	29.992,24
2019	5029	A.B.	BACHICABO	Materialez hornitzea haranaren bidea egokitzeko	14.338,50	11.779,35	11.779,35
2019	5030	A.B.	BARRIO	Babes eskudetak (35 m elizaren kaleko azken tartera eta 5 m beheko auzora)	4.114,00	4.114,00	4.114,00
2019	5032	A.B.	BARRÓN	Goiko auzoa konpontzea	2.527,69	1.742,28	1.742,28
2019	5002	U.	BILAR	Pellet berogailua	2.725,73	2.653,13	2.653,13
2019	5040	A.B.	CORRO	Edukiontzi estalkiak	18.742,78	18.742,78	18.742,78
2019	5043	A.B.	ERENTXUN	Ekipamendu lurzattia itxi edo hesitzea	4.815,89	4.815,89	4.815,89
2019	5008	U.	ERRIBERAGOITIA	Zoladura lanak egitea Castillo-Sopeñan	21.180,14	11.609,34	11.609,34
2019	5042	A.B.	ETXABARRI URTUPIÑA	Hormigoia botatzea puntu berderako sarreran	2.933,52	1.968,85	1.968,85
2019	5044	A.B.	ETXEGOIEN	Santikurutze eta Babioko zidorrak egokitu eta seinaleztatzea	5.816,09	765,33	765,33
2019	5045	A.B.	FAIDU	Bidezidorra konpontzea	13.070,71	8.182,38	8.182,38
2019	5046	A.B.	FONTECHA	Beheko auzoko bideak eta hormak konpontzea	5.602,30	3.008,06	3.008,06
2019	5047	A.B.	FRESNEDA	Hegoaldeko kaleko azken tartea zolatzeta (50 ml inguru)	16.318,52	3.634,80	3.634,80
2019	5097	A.B.	GATZAGA BURADON	Aparailuak jartzea zirkuitu biosasangarriko	6.060,90	6.060,90	6.060,90
2019	5049	A.B.	GAZEO	Markesina jartzea	6.048,79	6.048,79	6.048,79
2019	5053	A.B.	GILIERNA	Langak jartzea aberentzako pasabidean	2.008,60	1.766,60	1.766,60
2019	5051	A.B.	GOIURI-ONDONA	Hormigoia bideak konpontzea	14.698,48	9.450,48	9.450,48
2019	5054	A.B.	HEREDIA	Lurzatiak zuloak betetzea	2.106,99	1.870,00	1.870,00
2019	5055	A.B.	HEREÑA	Andetako bidearen hiri zona egokitzea	15.236,32	4.961,50	4.961,50
2019	5058	A.B.	IBARGUREN	Mendiko bidea egokitzea	28.332,78	28.268,21	28.268,21
2019	5057	A.B.	IGAI	Hiri altzariak jartzea elizako landan	14.035,24	13.637,83	13.637,83
2019	5060	A.B.	IZARRA	Lurzatia egokitzea futbol 8an egiteko	11.861,45	7.563,87	7.563,87
2019	5061	A.B.	IZORIA	Bidearen gainaldea hobetzea	29.612,12	29.612,12	29.612,12
2019	5062	A.B.	JUNGITU	Bideak konpontzea	2.352,24	2.352,24	2.352,24
2019	5039	A.B.	KARKAMU	Elizpeko atea	3.107,28	3.107,28	3.107,28
2019	5092	A.B.	KEXAA	Bolatokiaren albo bat itzea	7.816,60	7.816,60	7.816,60
2019	5063	A.B.	KORRES	Hiri hondakin solidoen edukiontzi estalkiak jartzea	16.335,00	16.335,00	16.335,00
2019	5064	A.B.	LABRAZA	Haurrentzako parkea jartzea	17.243,65	6.812,48	6.812,48
2019	5113	A.B.	LACERVILLA	Ezpanda egokitzea	4.635,51	4.635,51	4.635,51
2019	5003	U.	LAGUARDIA	Askaldegia egokitzea Lasernan	10.021,22	9.731,62	9.731,62
2019	5065	A.B.	LARREA	Kale estua konpontzea	3.482,15	3.482,15	3.482,15
2019	5066	A.B.	LASIERRA	Markesina jartzea	5.047,62	3.085,32	3.085,32
2019	5005	U.	LEZA	Hiri altzarien elementuak jartzea	4.073,91	3.231,75	3.231,75
2019	5067	A.B.	LEZAMA	Autobus markesina argi puntu eta guzti	9.036,18	8.478,61	8.478,61
2019	5068	A.B.	LLANTENO	Atsedenerak egokitzea eskolen inguruan-elementu biosasangarriak jartzea	3.056,46	3.056,46	3.056,46
2019	5069	A.B.	LUNA	Arrianoko hilerriko horman metalezko hesia jartzea	6.416,27	6.416,27	6.416,27
2019	5070	A.B.	MAEZTU	Zirkuitu biosasangarria jartzea	12.553,18	12.553,18	12.553,18
2019	5077	A.B.	MANDAITA	Hormigoia botatzea txorako sarbidean	2.654,14	2.333,91	2.333,91
2019	5071	A.B.	MANURGA	Kontzejua etbearen erretzenak konpontzea eta kanpoaldeko arotzeria mantentzea	1.718,20	372,68	372,68
2019	5072	A.B.	MANZANOS	Erretzeirako estalkia jartzea	3.497,75	3.497,75	3.497,75
2019	5001	U.	MAÑUETA	Hainbat hiri altzari, pilotalekuko atea eta kaleetako plakak jartzea	25.289,00	22.385,00	22.385,00
2019	5073	A.B.	MARIETA-LARRINTZAR	Ekipamenduak konpondu eta hobetzea	994,45	994,45	994,45
2019	5075	A.B.	MATURANA	Markesina eta edukiontzi estalkiak jartzea	29.336,45	29.336,45	29.336,45
2019	5076	A.B.	MENAGARAI-BEOTEGI	Jauregi auzoko 2 poligonoko 874 lurzati publikoa egokitzea atsedenerako eta aisialdirako	26.687,34	26.337,65	26.337,65
2019	5006	U.	MOREDA ARABA	Udaletxe zaharreko lorategi bihurtuko gunea	7.207,97	7.207,97	7.207,97

2019	5078	A.B.	MORILLAS	Eserlekuak ipintzea	796,06	796,06	796,06
2019	5080	A.B.	NARBAIZA	Hobekuntzak egitea lurzatiak bideetan	8.345,67	6.792,50	6.792,50
2019	5007	U.	NAVARIDAS	Hiri altzariak jartzea	24.136,67	24.136,67	24.136,67
2019	5081	A.B.	OCIO	Zurezko 3 eserleku eta bizikletak uzteko toki 1ez hornitzea	1.576,67	1.576,67	1.576,67
2019	5082	A.B.	OIARDO	Egurtegiak estalkia teilaberritzea eta kanpoaldean zurezko informazio panela jartzea	3.894,74	2.545,84	2.545,84
2019	5083	A.B.	OKINA	Leihoak aldatzea	10.968,57	10.968,57	10.968,57
2019	5085	A.B.	ORBISO	Herrigune historikoko zola egokitzea	28.696,36	14.919,52	14.919,52
2019	5086	A.B.	OTEO	Lurzati bideak zagar bidez konpontzea	2.528,90	2.528,90	2.528,90
2019	5087	A.B.	OZAETA	Autobus geltoki gisa erabiltzen den oraingo markesinarako sarrera aldatzea	4.510,88	4.510,88	4.510,88
2019	5088	A.B.	PÁGANOS	Gizarte etxeko fatxada konpontzea eta hiri altzariak jartzea	8.356,26	8.053,76	8.053,76
2019	5089	A.B.	PAGOETA	Edukiontzia ezkatzea	717,37	717,37	717,37
2019	5090	A.B.	PINEDO	Zoladura egiteko hormigoiz hornitzea	278,30	278,30	278,30
2019	5091	A.B.	PIPAÓN	Hilerriko basiliza eta hilerriaren perimetroa margotzea	21.990,98	20.296,98	20.296,98
2019	5093	A.B.	QUINTANA	Hormigoizko zola egitea erabilera anitzeko lekuan	4.235,00	2.998,71	2.998,71
2019	5094	A.B.	RIBABELLOSA	Haurrentzako parkea berritzea	28.061,35	24.931,23	24.931,23
2019	5095	A.B.	SABANDO	Zoladura hobetzea	27.660,60	17.568,20	17.568,20
2019	5096	A.B.	SALCEDO	Hainbat obra	9.958,30	7.572,50	7.572,50
2019	5099	A.B.	SANTIKURUTZE KANPEZU	Dauden hiri eta kirol eta altzarien ordez beste batzuk	8.830,46	8.830,46	8.830,46
2019	5100	A.B.	SANTURDE	Hesiak jartzea kirol eremuan	5.973,96	4.907,61	4.907,61
2019	5101	A.B.	SARATXO	Bi mahai jartzea ibaiaren inguruko lurzatian, saskibaloi zelaietan	2.726,49	2.726,49	2.726,49
2019	5103	A.B.	TRESPUENTES	Kontzeju aretoan hormigoizko plataforma	862,13	862,13	862,13
2019	5104	A.B.	TROKONIZ	Hiri altzariak jartzea parkeetan	6.739,71	6.739,71	6.739,71
2019	5105	A.B.	ULLIBARRI-GAMBOA	Herria egokitzea	26.447,43	16.294,33	16.294,33
2019	5108	A.B.	UNTZA-APREGINDANA	Gizarte etxearen aurrealdeko espazioa egokitzea	3.606,72	3.606,71	3.606,71
2019	5106	A.B.	URIBARRI HARANA	Taberna margotzea eta eserlekuak egitea	967,90	967,90	967,90
2019	5107	A.B.	URIBARRI-JAUREGI	Itxurak konpontzea hondakinen edukiontzien eremuan	5.292,29	5.292,29	5.292,29
2019	5110	A.B.	VILLANUEVA DE VALDEGOVIA	Edukiontzia estalkiak	29.717,39	29.717,39	29.717,39
2019	5011	U.	ZALDUONDO	Zeledon-toki udal eraikinaren inguruak egokitzea (eskola zaharrak)	12.025,42	7.572,50	7.572,50
2019	5112	A.B.	ZUHATZU	Espalioak garbitzea, seinaleak jartzea	3.066,12	848,40	848,40
2019	5114	A.B.	ZUHATZU DONEMILIAGA	gizarte etxerako eta kontzeju aretorako irisgarritasuna	9.451,31	9.451,31	9.451,31
				GUZTIRA	921.199,88	751.510,34	751.510,34

AB = Administrazio Batzarra
U = Udala
K. = Kuadrilla

AUZO HARREMANAK 2019-II. ERANSKINA, UKATUTAKOAK, ekainaren 27ko 21/2013 FORU ARAUA APLIKATUZ

URTEA	ESP.	ERAK. MOT.	ERAKUNDEA	OBRA	ARRAZOIA
2019	5014	A.B.	ADANA	Kale argia bide publikoan jartzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2019	5015	A.B.	AGIÑAGA	Zurezko estalkiak jartzea zabor edukiontzietan, eliza inguruan, kale argiaren inguruan eta gaztandegi inguruan	21/2013 Foru Arauaren 4. artikulua
2019	5020	A.B.	ANTOÑANA	Haur jolasak egokitu eta jartzea	21/2013 Foru Arauaren 4. artikulua
2019	5021	A.B.	ANUNTZETA	Biderako sarrera egokitzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2019	5000	U.	ARAMAIO	Aramaioko Etxaguen auzoko udal bidearen horma konpontzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua 21/2013 Foru Arauaren 8.6 artikulua
2019	5033	A.B.	BASABE	Uraskara sartzeko kalea zolatzeta	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2019	5034	A.B.	BERNEDO	Kaleak zolatzeta	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2019	5035	A.B.	BIKUÑA	Iturria eta garbategia garbitzea eta edukiontzien ingurua ixtea	21/2013 Foru Arauaren 12.1 artikulua
2019	5036	A.B.	BÓVEDA	Eskudelak jartzea Real kaleko 60 zenbakitik gertu	21/2013 Foru Arauaren 9.4.7 artikulua
2019	5037	A.B.	CARANCA Y MIOMA	Carancako hilerriko atea	21/2013 Foru Arauaren 12.1 artikulua
2019	5009	U.	DONEMILIAGA	Karpa erostea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2019	5041	A.B.	DURRUMA	Gizarte etxe barruko akaberak	21/2013 Foru Arauaren 4. artikulua
2019	5098	A.B.	DURRUMA KANPEZU	Gizarte etxearen teilatu hegala konpontzea	21/2013 Foru Arauaren 9. artikulua
2019	5048	A.B.	GALARRETA	Zurezko seinaleak jartzea Galarretatik Urbiako mugaraino	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2019	5050	A.B.	GEBARA	Seinaleak (4013)	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2019	5052	A.B.	GOPEGI	Hesiaren bidea eta areetakoa konpontzea eta mantentzea	21/2013 Foru Arauaren 4. artikulua
2019	5031	A.B.	GORREBUSTO	Zola egokitzea eta partez hesitzea baskularen barrualdea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua 21/2013 Foru Arauaren 9. artikulua
2019	5056	A.B.	HERMUA	Hustubideak jartzea buxadurak konpontzeko	21/2013 Foru Arauaren 9. artikulua
2019	5010	U.	IEKORA	Artxibategia instalatzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2019	5059	A.B.	ILARRATZA	Bideetako sastrakak kentzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2019	5038	A.B.	KOMUNIOI	Euri uren sarea garbitu-libratzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua 21/2013 Foru Arauaren 4. artikulua
2019	5004	U.	LANTZIEGO	Eskoletako zola egokitzea Binasperin	21/2013 Foru Arauaren 4. artikulua
2019	5074	A.B.	MATAUKO	Bolatokiko zoria konpontzea	21/2013 Foru Arauaren 4. artikulua
2019	5084	A.B.	ONDATEGI	Herriko interes guneak adierazteko seinaleak jartzea	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2019	5102	A.B.	SOBRÓN	Haurren parkea egitea	21/2013 Foru Arauaren 12.1 artikulua 21/2013 Foru Arauaren 8.6 artikulua
2019	5109	A.B.	URRUNAGA	Komunetarako etxola bat jartzea bolatoki ondoan	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua
2019	5111	A.B.	VILLAVERDE	Kanpoaldeko etxola sute gurdirako	21/2013 Foru Arauaren 6. artikulua

AB = Administrazio Batzarra
U = Udala
K = Kuadrilla